


Groenlandia, paradisu berdea



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA
@irazustabarrena

Groenlandia, 982. Erik Thorvaldsson (950-1003), *Erik Gorria* ezizenez ezagunagoa, munduko uharterik handienara iritsi zen. Esploratzaile eta merkataria norvegiarrak urte batzuk lehenago utzi zuen sorterrria, hilketa bat leporatzen ziotelako ihes eginda, eta Islandiara iritsi zen. Han ere hainbat delitu leporatu zizkieten eta hiru urteko erbestealdiaz zigortu zuten. Orduan iritsi omen zen Groenlandiako kostaldera, beti ere Islandiarren Sagen arabera.

Zigorra beteta, lurralde berri hura kokaleku egokia izan zitekeela zabaldu zuen eta 986an 14 ontzi iritsi ziren uhartera, bertan bizitzeko asmoz. Erik Gorriaren Sagak dioenez, “udan, aurkitu berri zuen lurraldera joan zen Erik. Groenlandia deitu zion, izena lagungarria izango zelako jendea erakartzeko”. *Grønland* hitzak “lurralde berdea” esan nahi du eta, hala, lur emankorrak eta klima mesedegarria iradoki zizkien errekrutatutako zituen gizon-emakumeei. Izen horrekin, Islandia (“Izotzaren Lurraldea”) baino askoz hobe izango zela pentsatu zuten askok. Egun, hainbat historialarik iruzurtzat eta nolabaiteko publizitate engainagarritzat jotzen dute Eriken jokaldia.

Dena den hori baino lehenago, uhartearen mendebaldean inuitek populatua zegoen eta haiek *Kalaallit Nunaat* edo Kalaalliten Lurraldea esaten zioten –kalaallitak Groenlandiako inuiten talderik



CARL RASMUSSEN

ERIK GORRIAREN ONTZIA GROENLANDIA DEITUKO ZION UHARTERA IRISTEN, 982. URTEAN.

handiena dira-. Gainera, Erik ez zen izan Groenlandiara iritsi zen lehen eskandinaviarra ere. Tradizioaren arabera, mende bat lehenago, Gunnbjörn Ulfsson-ek zapaldu omen zuen lurraldea eta *Gunnbjarnarsker* deitu zion. Ondoren, Snaebjörn Galti saiatu zen bertan giza kokaleku bat abiarazten, baina saiakerak porrot egin zuen garaiko erregistroen arabera. Beharbada, ez zuelako asmatu kanpaina eraginkorra egiten, gerora Erikek egingo zuen bezala.

Pentsatzekoa da, 986. urtean 14 ontziak hara iristean konturatuko zirela Erik Gorriak berdez apaindutako lurralde hura izotzaren eta elurraren zuriak hartuta zegoela.

Baina PNAS aldizkari zientifikoak argitaratu berri duenez, Groenlandiako izotzak orain arte uste baino askoz bizkorrago urtzen ari dira, 2003an baino lau aldiz azkarrago. Zoritxarrez, klima aldaketak Erik Gorriaren iruzurra egi bihurtu du. ●

Merkurioak erotu zuen kapelagilea

Lewis Carrollen *Aliceren abenturak* lurralde miresgarrian nobelako pertsonaietako bat Kapelagile Eroa da, eta ez da kasualitatea. Carrolllek Stockporteko kapela fabrika ezagutzen zuen eta bazekeen kapelagileen artean buruko arazoak ohikoak zirela. Ehungintza sektorean eta, zehazki kapelagintzan, larrua garbitzeko merkurioa erabiltzen zuten eta luza-

roan substantzia hori arnastuta, langileek hainbat sintoma izan ohi zituzten: jarrera suminkorra, mesfidantza, auto-estimua galtzea, agresibitatea... Gerora jakingo zen buruko arazo horien jatorria merkurioa zela, baina fenomenoak hizkuntzan ere izan zuen eraginik; ingelesez, *mad as a hatter* (kapelagilea bezain eroa) esamoldea erabiltzen da oraindik. ●



JOHN TENNIEL